

Foruzaingoak euskarari ematen dion "tratu iraingarria" salatu du Behatokiak

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 10/10/2025

Behatokiak Foruzaingoari kexa bat bidali zion eta horri honela erantzun zion Poliziak: "...contestación a nuestro requerimiento solo en euskera... No entendemos. Manzanas traigo... Archivamos"

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak salatu du Nafarroako Foruzaingoak ez duela bermatzen herritarrek arreta eta informazioa euskaraz jasotzeko duten eskubidea. Behatokiak azaldu duenez, orain arte jasotako salaketek agerian utzi dute Foruzaingoak gaztelaniaz bakarrik igortzen dituela mezuak sare sozialetan, elebitasuna behartzen duen araudia urratuz. Gainera, euskara erabiltzen den aldi bakanetan, "baldar eta ulertezin" egiten dela gaitzetsi dute.

Duela egun batzuk, Euskararen Telefonoan erregistratutako kexa bat helarazi zion Behatokiak Foruzaingoari sare sozialetan euskara modu desegokian erabiltzeagatik, eta kexa horri honela erantzun zion Poliziaren komunikazio taldeak: *"Nos gustaría recibir esta comunicación también en castellano, con el fin de poder entenderla y contestarla. Es incomprensible cómo no se utilizan las dos lenguas oficiales de Navarra"*. Behatokiak berriz ere euskaraz erantzun zion Foruzaingoari, euskaraz ere arreta eskaintzeko duten betebeharra oroitaraziz. Behatokiak salatu duenez, azken mezu horri, "mespretxuz" erantzun zion Foruzaingoak: *"Expediente inicial solo en euskera, contestación a nuestro requerimiento solo en euskera... No entendemos. Manzanas traigo... Archivamos"*.

Behatokiarentzat erabat onartezina da Nafarroako erakunde publiko batek euskaldunak "gutxiestea" eta "mespretxatzea". "Are larriagoa da, gainera, jasotako arretaz kexu diren herritarrei eta erakundeei horrelako lotsagabekeria eta inpunitatearekin erantzutea", gaineratu du. Erakundearen irtiz, agerian uzten du euskararen inguruko "ezagutzarik eta errespeturik eza".

<https://eh.lahaine.org/foruzaingoak-euskarari-ematen-dion-tratu-iraingarria-salatu>